

Zinegoak jaialdiko filmak ikusi ahal izango dira Igorren

20. orrialdea

Bruno Soto Espainiako halterofilia txapeldun

Junior mailan, 96 kilo azpiko kategorian, 132 kilo abiadan eta 167 kilo denpora bitan, guztira 299 altxau ebazan Madrilen, urrezko hiru domina lortuz. Bere marka 15 kilotan hobetu eban. Espainiako Txapelketa Absoluturako sailkatu da. **19. orrialdea**



Onditz Iturbe korrikalari igorreztarak hiru lasterketa irabazi ditu

18. orrialdea

Eszenaleku bitan izango dira Lemoakustik jaialdiko kontzertuak

Arratiako Musika Eskolea, Ane Han, Esanezin, Pasadena, Habi, eta Ibil Bedi taldeak egongo dira Kotxepinen.

Ez da ibiltaria izango eta kontzertu guztiak Kotxepinen izango dira, baina pandemiaren aurreko edizinoetan lez, jana eta edana egongo da *food-truck* eta txosnatan. Horregaitik eta musikariaren gaztetasunagaitik Izkander Fernandez antolakuntzakoaren ustez, aurtengoa itxaropenaren edizinoa izango da.

Kotxepin Kultur Etxeko eszenaleku bitan egiteak aukerea emon dau bakarlarikaz orde, taldeak osotutako kartela. Ane Han Lemoakoa be taldeagaz egongo da. **15. orrialdea**



Lege barriak publikoa kaltetuko ete dauan bildur dira eskola publikoaren aldekoak



Aprilaren 7an onartu eban Eusko Legebiltzarrak EAEn hezkuntza lege barri bat egiteko oinarrien akordioa, alderdi gehienek adostasunagaz. Publiko eta pribadu sare biak mantentzen eta itunpeko ikastetxeak hauspotu egiten dituala eskola publikoaren kalterako uste dabe eskola publikoaren aldekoak. **12., 13. eta 14. orrialdeak**

IGORRE

Sabadell bankua ez zan Gaztetxea hustuteko epaiketari agertu

Hori dala eta, Kiñu Gaztetxeko asanblakideek epaiketari irabazi dabela aldarrikatu eban. Oin hilabeteko epea dauka Sabadellek errekursoa aurkeztuteko. Egun berean, arrastian, alkarretaratzea egin eban Kiñu Gaztetxearen aldekoek Igorren. **5. orrialdea**

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant

[f](https://www.facebook.com/garena.restaurant) [i](https://www.instagram.com/garena.restaurant) [garena.restaurant](https://www.garena.restaurant)

ZEANURI

Zeanuriko Erroten XV. Ibilaldia maiatzaren 8an izango da

Ibilbide bi dagoz aukeran; luzeak 18 kilometro ditu eta laburrak 12. Luzea egiten dabene, 9 erroten ondotik pasauko dira, danak hidraulikoak, eta hirutan sartu-urtena egiteko aukerea eukiko dabe. Ibilbidearen helburuak Zeanuriko ondarea jakitera emon eta naturaz gozatzeko dira. **6. orrialdea**

EKIN
Eraiketak

30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseakin.com

ARRATIA

Baserri giroko jaiak Areatza, Zeanuri eta Zeberion

Ganadu eta artisautza azokak egongo dira maiatzaren 8an Areatzan eta 14an Zeanurin, Karpoko jaiak eta Sanisidroak ospatutako, hurrengo hurrengo. Jaiok zapatu-domeka hartuko dabe bai Areatzan eta bai Zeanurin. Feriaren aurreko egunean Areatzan, gastronomia lehiaketak eta zesta-punta eta pala partiduak egongo dira. Zeanurin, barriz, idiprobak egongo dira ganadu azokaren hurrengo egunean.

Zeberion, Santa Kurtze jaiak ospatuko ditue Helbarrenen. Maiatzaren 6tik 8ra, auzokoak batuko dira alkarregaz jan, eta jai giroan ospatutako udabarriko jai hau. **5. eta 7. orrialdeak**

Literatura txokoa

LECTURA FÁCIL

Cristina Moralesen *Lectura fácil* aspaldian irakurri dodan nobela-rik erradikalena, anarkofeministena, burrukalaria, antisistemena, balienteena eta benetakoena da. Nobela honegaz Cristina Moralesek (Granada, 1985) Herralde saria jaso eban 2018an eta Narratiba Sari Nazionala 2019an. Epaimahaiaren arabera, "proposamen erradikal eta guztiz originala dalako, Espainiako literaturan genealogiarik ez daukana, eta ahozkotasanaren birsorkuntza, aparteko pertsonaiak eta garatzen dan testuinguru politikoaren irakurketea nabarmentzen dituna dalako" jaso eban Espainiako Narratiba Saria.

Bai, erradikala da idea, forma eta erabiltzen dauan berbake-

ran. Ideei jagokienean, sistema neoliberal eta patriarkaduren kontrako oihu bat da, garrasi latz bat. Sistemearen krudelkeria salatzeaz gainera, agirian ixten dau, bere burua "alternatibo" deitu arren, *statu quo*-a sendotzen dauan aktibismoa.

Forma aldetik be sano originala da: fanzine bat, asanblada libertario baten aktak, protagonistetako bat nahitaez antzutu gura dauan epaitegi aurrean egindako adierazpenak eta beste protagonista batek Irakurketa Errazaren teknikeagaz idazten dauan nobela autobiografikoa erabiltzen ditu no-beleak bere kontakizunerako.

Protagonistak lau dira: Nati, Patri, Marga eta Angels. Senideak dira eta, maila desbardinetan,

Administrazioak "adimen ez gaitasun"tzat jotzen dauana daukie. Bartzelonan bizi dira, etxebizitza tutelau baten. Okupak, Hipotekak Kaltetuen Plataformea, ateneo anarkistak, administrazio zapaltzailea eta arte politikoki zuzeneko Bartzelona da eleberraren eszenalekua, han bizi dira protagonistak eta.

Baina *Lectura fácil* ez da bakarrik nobela politizatzaile bat. Protagonisten indarrak eta duintasunak ukitu egiten dabe irakurlea, eura kaz bat egin eta euren lekuan ipiniz. Izan be, gizarteak ezarritako ezgaitasun estigmearen aurrean, itzelezko duintasuna erakusten dabe protagonistek, eta inbibilizau eta ukatu gura jakiezan gorputz eta sexualidadeak, go-

zatuten dabez pasinoz eta bildur barik. Hazur eta mamizko pertsonaia epikoak dira, gure gizarteko egunerokotasunaren krudelkeriari aurre egiten deutesienak.

Eta sistemearen krudelkeria honerik, epel eta itxurakeriakaz baino erantzuten ez jakon sasoi honetan, aire freskoa dakar Cristina Moralesen liburuak.



Cristina Morales
Lectura fácil
Anagrama, 2018
424 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Maiatzaren 2tik 8ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 9tik 15era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 16tik 22ra

Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoaraino.

Elorriotik. Lanegunean 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangoetik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea. Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (II).
Kale berbakunea sustatu guran

Hitanoz ikasten dabizenek sarri ez dabe jakiten talde bateri zelan egin behar jakon berba. Gaurkoan hauxe landuko dogu.

Esate baterako:

Hi eta hi!! Erduzie hona! Gaur behar guztiak amaitu beha juzek! (Batuaz: Hi eta hi! Zatozte hona! Gaur lan guztiak bukatu behar ditiagu!)

Zuka gabizanean zu eta zuek erabilten doguz.
Hitanoz ordea ez da "hiek" formea erabilten, zuek baino.

Adibidez:

Karreraa hik irabazi dok, baina zenbatek hartu dozue parte?

Esteka honetan bideo bat topaiko dozu:



ERETXIA

"Konpondu
dozue
honezkero
mundua?"

!! Konpondu dozue honezkero mundua?". Hori da etxean gaztetxeko asanblada luze batetik berandu heltzerakoan egiten deusten ohiko galdera burlatia. Normalean, "bagabiz" izaten da nire erantzuna. Beste inoz, asanbladako langaia latzagoa izan danean, "zuok itxitako arazoak konpondu behar doguz ala?" galdereagaz be erantzun izan deutset gurasoei.

Pentsau bako erantzunak izaten dira horreek. Eta lerro honeek idazten zelan hasi gogoetatu arte ez naz konturatu zelango dilema azalerazoten daben: gizartea konpondu ala eraldatu. Esan dodan moduan, "bagabiz" izaten da etxera heltzerakoan nire erantzun arina. Baina ondo pentsauta; konpondu daiteke gizarte hau? Zeozer konpondua izateko, definizinoz, aurretik ondo funtzionau behar izan dau. Funtzionau dau ba inoz klase-gizarte honek? Ni gaztea naz. Ez dot aurrez aurre ezetu Euskal Herrian eta munduan atzen mendean gertatutakoa, baina eskolan eta unibersidadean ikasi dodanagaitik gitxi izan dira poztasun kolektiboak, herentziarik jasoko ez dogunontzako gitxienez.

Mende honek ez dauka itxura hoberik. Krisi ekonomiko bi pasatzen ikusi doguz gazteok, bata hipoteken espekulazinoagaz hasia, bestea pandemikoa. Oin, gerrea dala-ta hirugarren krisia be ei gabiz itxaroten. Etxebizitza-eskubidea, osasuna eta etorkizun baketsu baterako itxaropena ikusi doguz murriztuta. Honeen aurkako protesta ekintzetan askatasun urraketak jasan bitartean. Isunak, borra golpeak, atxiloketak eta kaleratzeak. "Zein da ba, gaurko gizartean gazteon rola?", da artikulu hau idazten hasteko egin jatan galderea. Erantzuna argia da: hau eraldatzea. Ez gara saiatzen lehenengoak izango, eta



ASIER ABRISKETA
LANDAJO

Kazetaria

espero dot -lortzean badogu be-azkenak ez izatea.

Saiakera horretan, lehen le-rrorik, gaztetxeen mobimentutik baino ezin dot berba egin. Baina gaur egun ikusten dodanez, ingu-ruko eragile politikoak protesta-

ren bidez "mundua konpontzera" mugatzen dira, zalantza barik, hori be txalotzekoa. Bitartean, gaztetxeak eta orokorrean okupa-zino antolatuaaren mobimentuak, gazteon ofensibearen ikur bihur-tu dira. Esparru desbardineta-ko gazteak batzeako gaitasunagaz gainera. Banku edo norbanako aberatsen eraikin hutsak okupau, auzolanez konpondu, bide batez argia "pintxau" eta herritarrei opa-ritu. Bertan biziteko, alkarregaz batzeako edo kultura herrikoia-ri bultzada bat emoteko bada be. Okupazinoa beharizanetik jaioten da, baina burrukarako tresna eta burrukentzako laguntza bi-lakatzen da. Holan, atzen urtee-tan gaitasun ekonomikoak gitxitu diran bitartean bizi dogu gaztetxe, etxebizitza-sindikatu eta okupazi-no bulegoen loraldia.

Esaterako, gaztetxeak gazteak batu eta antolatze-ko espazio ba-ten beharizanagaz jaioten dira, kulturalki zein politikoki jarduteko. Baina bidean, espekulazinoaren kontra aritu, banketxe zein jaube handienei aurre egin eta inguruko eragileak alkarlanean, euren burrukei indarra emotea da gaz-tetxeen papera. Askok kontzertu eta juergarako leku lez baino ez dabez ikusten gaztetxeak. Baina besteak beste, sindikatu, anto-lakunde politiko, talde feministak, ekologista, nekazari, kulturgile, sortzaile eta errefujiaduen harre-ra taldeen etxea be badira gazte-txeak. Adin eta jatorri guztietako jente eta alkarreak. Gaztetxeak ez diralako gazteontzako etxeak, gazteok gobernatu-ko espazioak baizik.

Behekoak batuta, alkartasunez eta autogestinoz, jai giro eta la-gunartean, gizarte krudel honeri ahal dogun heinean buelta emotea da gure helburua. Ondo dakigu, batailaren bat irabazita be, gazteok bakarrik ezingo doguzala goikoak garaitu. Nire ikuspuntutik, gaztetxeen jomuga beste bat da, gure artean klase-independentzia lortzea. Beraz "ama, aite", guk ez dogu mundua konponduko. Guk eraikinak konpontzen doguz, bertatik gizarte barri bat erein eta hasteko.

NETFLIX
EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



IXONE AROMA

Atxurrak zorroztu

📌 Gosea dator". Halan esan deust Mari Terek, telebistan entzundakoakaz gogaituta, amatzeko botoia sakatu dauanean. 1928an jaioa, bere azalean ezetu eban gure amamak gerrea, ikusi eban Bieskotik Gernikako kea eta jaiotetxea atzean itxita Bilbora ebakuau behar izan zan etxeokoakaz batera. Baina hori baino txarragoa izan ei zan gerraostea. Eta orduko gosea, gosea eta gosea.

Bilbotik etorritakoan topau eben miseria sagarrei esker pasau ebela kontau deust, solan, ereite sasoi inportanteena pasauta, ezebe ez eukiela eta. "Hurrengo urtera itxaron behar! Sagarrak jan eta aurrera!". Eta behin hurrengo uzta jasota? Bazkaltzeko babak, gauean esnea taloagaz edo porrusaldea. Egutero. "Eta pozik! Kalekoen aldean ondo!".

Askotan entzun izan deustagu "goserik pasau bako umeak" garala, baina geuk be gosea zer

dan ezetuko dogula dirudi. Arriskuan dago behar beste elikagai fresko eta osasungarri eskuratu-teko aukerea. Halan aurrekusi dau Rockefeller Fundazinoko presidente Rajiv Shah-k, "datozen hilabeteetan elikadura krisi masibo eta berehalakoa" biziko dogu.

Burujaube izatetik urruntxo gagoz Euskal Herrian. Bertan konsumiduten dogunaren %5a baino ez ei da ekoizten gurean. Peruko esparragoak, Costa Ricako aguakateak, Kanadako garbantzua, Gabonetan kerezak... kaka morralean! Amamaren bizimodua ez dot berreskuratu gura, baina elikadura kontuetan (be) aurrekoengandik zer ikasi badaukagula uste dot. Berbetatik ekintzetara pasetako momentua da, Legassek esan eban moduan, jatea ekintza politiko eta burruka iraultzailea da eta.

Hasi gaitezan ereiten solo, lur txatal, terraza, balkoi edo dana dalakoetan. Edo berdegune ahaztuetan, zergaitik ez! Gu elikatuteko zereginean patxadaz dabizanak babestu daiguzan, ez berbaz, ekintzaz baino. Gertukoa konsumidu daigun, aliantzak sortu, trukea berreskuratu... Rockefeller-ekoak ez dira guri begira egongo. Geuk egiten ez badogu, jai daukagu.

Halan zein holan, atxurrak zorroztu beharko doguz, ezinbestean...

ZERTZEAN



ANGEL LARREA

Tristezia

A, Tristezia, betiko adiskide! Azken oporraldiko moteltasuna, gure urteen zama astuna-edo, ez dakit ziur zein izango ote den egoera berezi honen zergatia!

Iluntasun beltz-nabarrak ugari agirian, gehiegikeri askok sortutako min handia, Mendebaldeko gure herrialdeen egoismoa, zuhurtasunaren falta larria guztion aurrean. Bihotzak baina, zera esaten dit isil-isilean: "Agian, zu, aspaldiko maitetxo hori, faltatzen zatzaizkit oraintxe bertan!".

Oharra:
Azken boladan ikusten gabizan krisiak eta gorabeherak eraginda, hona hemen poema hau.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Benidormera joan eta danok Zutik! Makina bat urte joan zein etorri eta Zutik! Isilik gure gaituen horreen aurrean Zutik! Traba guztien erantzuna Zutik! Zutunik. Hori da Arratiako gazte mobimentuaren irudirik txikiena eta esanguratsuena. Letra kopuruen antzean gitxi gara, oso gitxi, baina indarra eta gogoia dauan lekuan, ametsak ezin dira epaitu. Hainbat lelo, aldarri, irakurketa, kontzentra, manifestazio... ekintza dira gure ibilbidean erakusgarri eta eredu. Iraultza, txikiena bada be, alkartasunetik eta ekintzetatik sortuten dalako. Gazteok amestu, sortu, alkarbanatu, gozatu, ikasi, maitatu, ekin, sentidu... egiten dogu eta hori berori gura dogun herriari emoten deustagu. Segidu daigun burrukea indartuten eta hazi barriak ereiten; izan be, hori izango da aurrerantzean ez galtzeako eukiko dogun erreferentzia.

Eskerrik asko bidelagun izan zarien, zarien eta izango zarien dano! Arratiako gazteok Zutik!

Andoni Ariznabarreta eta Garazi Santos





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

**Ortodontzia
Implanteak
Estetika**

Bidebarri 1. behe
48140 Igome-Bidaka
T. 94 631 50 39
Itxaropen Zerbaita: 100
R.P.S. 31/06

ZEBERIO

Estresa eta ansiedadea arinduteko andrentzako ikastaroa antolatu dau Zeberioko Udalak



Erredakzinoa

Hilaren 9an hasita, maiatzeko astelehenetan, *Autozaintza emozionala* ikastaroa antolatu dau Zeberioko Udaleko Bardintasun Sailak andrentzako, estresa eta ansiedadea arinduteko tresnak eskaintzeko asmoz. Lau saio izango

dira 18:00etatik 19:30era eskola zaharrean. Nerea Fernandez Placeres psikologo eta gerontologoa, genero bardintasunean espezializatutako emongo dau ikastaroa. "Norberaren zaintzak berreskuratzeko tresnak eskainiko dira, norberaren beharren jakitun izateko. Autozaintza emozionala autodefensa feministarako tresna moduan ulertzen dogu. Tresnen adibide moduan asertibidadea, denporearen kudeaketea eta sororidadea dagoz baina honeek garatuteko lehenengo emozinoen autoezagutza bat egin behar da. Norbere burua babesteko eta norberaren buruagaz ahaldunago sentiduteko tresnak garatu behar dira. Estresa, ansiedadea, eta bestelakoak saihesteko eta izatekotan hobetuteko estrategiak landuteko espazio praktikoa bat izango da" azaldu deutso BEGITUri Amaia Estiballes Zeberioko Udaleko Bardintasun Zerbitzuko teknikariak.

ZEBERIO

Santa Kurtze jaiak ospatuko ditue Helbarrenen



Erredakzinoa

Txupinazoa maiatzaren 6an izango da baina Santa Kurtze egunean, maiatzak 3, mezea eta erramu bedeinkapena egongo da ermitan 12:00etan, ostean kopaua egongo da. Txupina barikuan 18:30ean bota ostean, astegoiaren osoan ospatuko dabez auzokoek jaiak. Tortilla Lehiaketeak izango dau protagonismoa barikuan. Partaideek 19:30ean aurkeztu beharko dabez tortillak eta sariak jasoko dabez epaimahaikoen eretxian tortilla gozoenak egin dabeneak. Gauean, jai giroak segiduko dau parrilladea eta musikeagaz. Zapatuan jaiak egun osoa hartuko dau. Goizeko 11:00etan, Santa Kurtze ermitatik, Helbarren osotuten daben auzoetara abia-

tuko da martxa bat. Eguerdian, alkarregaz bazkalduko dabe auzokoek, bakotzak etxetik eroandakoagaz. Jai batzordeak edaria, ogia eta kafea ipiniko ditu. Arrastiko 17:30ean, jolasak eta txapelketak eta txokolate jana egongo da, eta gaueko 21:00etan, Both eta Ostrich Wedding taldeen kontzertuak egongo dira. Domekan, konbidaduen bazkariak ipiniko deutse amaierara aurtengo jaiak. **Antxinako tradizioa mantenduz** Elorria bedeinkatzea eta ondorengo jai tradizio handiko jaiak da. Helbarrenen oindino indartsu mantendutena da elorri edo arantza erramua bedeinkatu, eta soloetan ipinteko nekazal ohiturea. Elorria, goizaldean batu, adar batez kurutzatzen egin, Santa Kurtze ermitan bedeinkatu eta baserriko atarian eta soloetan ipinten da soloa babestu eta uztatza ona emon dagian. Santa Kurtze jaiak, maiatzaren 3an ospatuten da. Erromako eleizeak, aurretik egozan eritu eta ohituren gainean ezarri eban jai hau, IV. mendean.

IGORRE

Pozarren urten ziran Kiñu Gaztetxeko kideak Durangoko epaiketatik

Sabadell Banketxeko abogaduak ez ziran aprilaren 27ko epaiketara aurkeztu. Hortaz, momentuz irabazi dabela aldarrikatu eben Kiñukoek egun berean Igorren egindako alkarretaratzean.



Erredakzinoa

Kiñu Gaztetxeari VIII. urteurreneko ospakizunak batu jakon euren kontrako epaiketara. Urteurrena sabore gazi-gozoz amaitzea espero eben baina sorpresa itzelagaz bueltau ziran gazteak Durangoko epaiketatik. Sorgiñola Gaztetxeko kideekaz batera egon ziran Justizia Jauregi kanpokaldean sententzia itxaroten. Baina lekukoa, akusaua eta Bilboko Okupazio Bulegoko abogadua, sartu eta jarraian urten ziran. Gertatutakoa sinetsi ezinik eta poz-pozik, aldarrikatu eban abokatuak: "Irabazi dogu! Ez dira aurkeztu!". Abogaduak momentuan azaldu ebanez, oin Sabadell Banketxeak 30 eguneko epea izango dau errekursoa aurkeztu eta ez bertaratzeko argudioak azaltzeko. Halanda be, pisuzko argudiorik ez daukiela eta epaiketara ez aurkezteko errazoa prozesuan egin da-

bezan akatsak izan daitezkeza gehitu eban. Izan be, eraikinaren propietadea eskuratzeko tramite batzuk egin barik aurkeztu eben gazteen kontrako salaketea, besteak beste. Gaztetxeen kontrako epaiketetan eskarmentu handiko abogaduak dira Bilboko Okupazio Bulegokoak, eta askotan errepikatu dabenez, eskema guztietatik urteten dan prozesua izan da Kiñurena. Igorretarrei gertatutakoaren barri emoteko, kontzentrazioa be antolatu eben Lehendakari Agirren arrasti berean. Bertan irakurritako komunikauan, antolaketa eta mobilizatzen emon dabezan urte bi honeek frutuak emon dauzala aldarrikatu eben: "Sabadellek Arratiako gazteriararen indarra ikusi dau eta ez da epaiketara aurkeztuteko gai izan". Horrezaz gain, ametsak epaiezinak dirala eta euren bide propioa egiten jarraituko dabela gehitu eben. Amaitzeko, ozen entzun zan okupazioaren aldeko aldarria.

ZEANURI

Sanisidroetako ganadu azoka eta idi-probak bueltan dira Zeanurín

Erredakzinoa

Aurten, egun bitan ospatuko dabe zeanuriztarrek San Isidro. Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azoka hilaren 14an, zapatuan, San isidro bezperan, izango da; eta San Isidro egunean, idi-probak egongo dira. Aurtengoa 39. edizioa da, 2019an izan zan 38.a. Ganadu azokea 10:30ean hasiko da eta eguerdiko 14:00ak arte egongo da ganadua ikusgai. Ganaduen artean behiek izaten dabe protagonismoa; limusina, pirenaiko eta asturiar errazetakoak egoten dira Zeanurín eta ederrenek saria izaten dabe. Behiez gainera, ardiak eta behorrak be egoten dira eta aurten egotea be espero da. Baserriko produktuak be ez dira faltauko, ezta beste jarduera batzuk be, erakustaldi zein

tailer formatuetan, baserri giroa Zeanuriko plazara eroateko. Ganadu azokeagaz batera, sanisidroetan, ezinbestekoak izaten dira idi-probak. Ganadu azokea, batzuetan San Isidro egunean bertan eta beste batzuetan aurretiko edo osteko astegoienean egin bada be, idi-probak mantenduz egin dira maiatzaren 15ean. Idi-proba erakustaldiak gero eta urriagoak dira, alde batetik, baserrietan jada ez dalako idirik egoten baserriko lanetarako, eta idiak daukiezan baserritarrek idi-probetarako beren-beregi eukiten dabez. Beste alde batetik, animalistek ez ditue proba honeek gustuko, idiek proba honeetan sufriduten dabelako, euren eretxian. Arrastian ikusi ahal izango da idi-proben erakustaldia, plazako probalekuan.



ZEANURI

Zeanurin errotarik errota, naturea eta kulturea buztartuz

Maiatzaren 8an izango da Zeanuriko Erroten XV. Ibilaldia.

Jon Urutxurtu

Urte biko etenaldiaren ostean, maiatzaren 8rako prestatu dau Joko Alai alkarteak 2022ko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Aurten hamabosgarren edizinoa beteko dau oinezko martxa honek eta antolatzailleek adierazoten dabenez helburuak hasikerako berberak dira: "alde batetik, herritarrei zein kanpotik hurreratzen diran bisitariei Zeanuri eta bere auzoak ezetuten emotea; bestetik, Zeanuriren historian errotek izan dabene garrantzia ezetu arazotea eta azkenik, domeka goiza natureagaz hartu-emonetan eta kirola eginez pase-tako aukerea eskaintzea". Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezetuten diran edo-eta han-hemenka azaltzen diran errota edo erroten errastuak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe.

Ibilbide bi prestatu dabez antolatzailleek, bata luzea, 18 kilometrokoa, eta bestea, laburragoa 12 kilometrokoa, jan-edana bananduko dan lekutik helmugara zuzentzen dana.

Urtekerea herriko plazan izango da, goizeko 09:00etan; plazatik, udaletxearen aurretik, abiatuz eta Altxiber eta Errotabari erroten ondotik —azken hau 2015ean zaharbarritu eben Manterolatarrak eta sartu-urtena egin ahal izango da—



Olabarriko errotearen maketea ikusten.

pasau ostean, Undurragak urtegiaren ertzetik egingo dabe aurrera, eta horretarako, 2019an zabaldu zan bidea —200 metroko egurrezko pasarelea— jarraituko dabe.

Urtegia atzean itxi bezain laster Barrengoerrota topauko dabe, Berretxikorta errekatxoaren ertzean. Agarre izeneko baserriaren ingurutik aurrera eginaz, Undurraga auzunera jaitziko dira Ibargutxiko errotarako bidea hartzeako; hemen, ateak zabalik izango dira, eta gura dabene kuku bat egin eta errotea lanean ikusi ahal izango dabe. Ibargutxitik Lanbreabeko errotera, eta hemendik barriro Undurragak urtegiaren ertzetik ekingo deusie bideari —oingoan beste aldetik—; presatik 100 metro atxina, Altxiberren, indarrak barritzeko jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantábricak. Aurrerantzean, lehenengo Otzerin-

mendi auzunean eta gero Uriben sartuko dira ibiltariak, eta Intxaurbeko, Axpeko eta Zulaibargo erroten ingurutik igaro ostean, atzen kilometroa beteten hasiko dira; helmuga baino 300 bat metro lehenago ibilbideko atzen errotea azalduko da, Olabarrikoa —Pujana familiak guztiz zaharbarritua— eta sartu-urtena egiteko aukerea izango da, Zeanuriko plazara heldu eta ibilaldiari amaierara emon aurretik.

Ibilbidea burutzerakoan, 18 kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziduko deusela, erroten ondare historiko-etnografikoa ezetuteaz gainera, udabarrin naturak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukerea izango dabe eta.

Bisitetan diran hiru errota: Errotabari, Ibargutxi eta Olabari
Ibilbidean zehar bederatzir erroten

ondotik igaroko dira ibiltariak eta hirutan —Errotabarrin, Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egiteko, errotea lanean ikusteko eta osatzen dabene atalak bertatik bertara ezetuteko aukerea izango dabe.

Errotabariako errotea: Otzerin-mendiko kofradian dago. 1785ean eregi eben. Zeanuriko errotarik barriena da. Hiru harri ditu. Errota honetan, presa eta antepara lotuta dagoz konporta baten bidez. Zeanuriko gainontzeko errotetatik bereiztuz, Errotabarrin errotapetik kaltze bat ateraten da, urak errekarat bideratzeko. 1975eko apirlean itxi eutsan lan egiteari eta azken errota-ria Andres Aldekoa "Ane" izan zan. 2015ean guztiz zaharbarritu eban Errotabari Manterola familiak.

Ibargutxiko errotea: Ipiñaburuko kofradian dago. XIX. gizardian burdinolea izan zan. Gaur egun harri bi badaukaz be, hiru harritzaz egin eban behar. Hirugarren harriak 1950erantza itxi eutsan lan egiteari. 1945ean errotearen azpiko aldean turbina bat eta generadore bat jarritz argindarra ekoizten hasi ziran Ibargutxin, eta 1978ra arte gitxi gorabehera Altxua, Ipiñaburu eta Undurragak baserri batzuetara saltzean

eben elektrizidadea. Ibargutxiko errotearen instalazioak guztiz zaharbarrituta dagoz. Azken erro-taria Gabriel Larrazabal izan zan, eta bere heriotzearen ostean, urte batzuetan, Satur semeak jarraitu eban ingurukoentzat ehoten. 2019an Pedro Elexpek erosi eban errotea eta bera da gaur egungo jaubea.

Olabarriko errotea: Ibarguen kofradian dago. Jatorritz burdinolea izan zan eta Zeanuriko patronoa zan Arriola familiaren jaubetza. Pujanatarren aurretik Manterola familiak ustiatu eban, 1898ko zemendiaren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, errotearen kargu egin zan arte. XX. gizardiaren erdirantza Benigno Pujanak —Isidoren semeak— errotea erosi egin eutsen Arriolatarrei. Benignok errotari lanetan jardun eban 1995eko urri bigarrenaren 11n hil zan arte. Aitarren heriotzearen ostean, Fermin semeak errotearen zaharbarritze lanei heldu eutsen eta hor darrai gaur egun be jo eta ke apurka-apurka txukunduz. Olabarriko erro-teak hiru harri daukaz. Errotearen ondoan burdinolearen errastuak azaltzen dira.

IBILALDIARI BURUZKO ZEHETASUNAK

- Eguna:** maiatzaren 8a, domeka.
- Izena emotea:** 08:30etik aurrera, herriko plazan: 6 euro Joko Alaiako bazkideek eta 4 euro 14 urtetik beherakoek. Umeeke de-balde.
- Urtekerea:** 09:00etan.
- Ibilbidea:** luzeak, 18 kilometro inguru eta laburrak 12 kilometro.
- Jan-edana:** Altxiberren jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantábricak.
- Errotetan sartu-urtena:** ibilaldiaren hasieran Errotabariako errotan sartu-urtena egiteko aukerea izango da, zarpigarren kilometroan Ibargutxikoan eta azken kilometroan Olabarriko errotan.
- Laguntzaileak:** Zeanuriko Udala, Gasca, Grupo Solitium, Arratiako Gurutze Gorria, Gorbeialde, Beintxa Eraikuntzak eta Txapó Creativos.

ARRATIA

Makatzak taldeak plataforma bat sortu gura dau autopista elektrikoaren kontra

Erredakzioa

Urteak daroez alkartekoek Red Electrica de Españaren kontra burrukan Gueñes-Itsaso goitensinoko linearen proiektua geldituteko. Oin, beste pausu bat emon eta Arratia eta inguruko herritar eta alkarteek osotutako plataforma bat sortu gura dabe. Hori dala-ta, herri batzar deialdia egin dabe maiatzaren 10erako, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean.

Gueñes-Itsaso, 400.000 voltio-dun zirkuitu bikotzeko autopista elektrikoak, biztanleen osasuna

kaltetu eta pasetan dan lekue-tako aberastasun kulturala eta biodibersidadea suntsituko leu-kela dinoe ekologistek. Esaterako, kultureari jagokonean, Aramotzeko historiaurreko kobak, tumulo megalitikoak eta Santa Marina ermitea suntsituko leukez; baita, desagertzeko arriskuan dagozan hegaztien habiak egiteko gu-neak, auzoak, nekazal landa ere-muak eta mendi publikoak be. Osasunari jagokonean, eremu elktromagnetikoak gaixotasunak eragiten dituala dinoe: DNA alte-razinoak, Alzeheimer-a eta garu-neko tumoreak, tartean.



ARANTZAZU

Ura Agentziak egingo dau Txorietxe eta Bildosolako bideko eskoilera

Erredakzioa

Igazko zemendia eta abendu ar-tean egindako eurien eraginez, Txorietxe eta Bildosolako bideko 70 metro inguruko bide zati bat eta hor egozan zuzatzak jausi zi-ran errekarat. Arantzazuko Udalak udal aldizkarian jakinarazo dau Ura Agentziari jagokola errekeagabitutea eta Urak egingo daua horko eskoilera.

Lan bi egin behar dira "alde batetik, errekatik arbolak atera, eta bestetik, eskoilera bat eregi bidea

barriro ez jausteko". Udalak, Ura Agentziari Arantzazuk ezingo leu-kela lanen kostua bere gain hartu planteau eutsan eta lanen balora-zinoa egin ostean, Ura Agentziak, eurek egingo dabela eskoilera ebatzi eban.



UBIDE

Hiru kontzertu eta dj-a egongo dira Ubideko garagardaoaren jaian

Txalainak, Bilboko bikote akustikoa; Matt Horan, country abeslaria eta The Longboards, Barakaldoko surf-rock taldea egongo dira maiatzaren 21ean Ubideko plazan, Ubier izeneko garagardaoaren jaialdian. Aurretik eta bitartean garagardao azokea egongo da, eta ostean, dj-a. Bigarren edizinoa da aurtengo hau.



Erredakzinoa

Eguerdiko 12:00etan hasiko da jaia, garagardao azokeagaz. Garagart, eta Byra Arabako garagardaoak eta Baobeer Gipuzkoako garagardao artisauak dastatu ahal izango dira. Traguari lagunduteko,

taloak eta bokadilloak be egongo dira salgai, horretarako ipinitako txosna baten.

Kontzertuak


Txalainak Bilboko bikote akustikoak, Hertzainak taldearen kantuak gogora ekarri eta ondo pasetako sortu zan, eta Ubiden, 13:00etan hasiko dira giroa alaituten. Matt Horanen kontzertua arrastiko 19:00etan izango da. Dead Bronco taldeko liderrak, bere bakarkako ibilbideari *American Folk Singer* izenpean ekin eutsan eta banjo-gaz, Ameriketako Estatu Batuetako folk musikea ekarriko dau Ubideko herriko plazara. 21:00etan, The Longboards Barakaldoko taldearen txandea izango da. Ez da ohikoa, Barakaldo lango uri baten surf-rock instrumentaleko banda bat sortzea, baina hirukote honek Californiakoa dirudian musikea jotzen dau. Kontzertuen ostean, djak ipiniko dau musikea, jaia eta jantza giroa gaubean luzatuteko.

IGORRE

Entsegu gelak zabaldu dauz barriro Udalak

Erredakzinoa

Apirilaren 26an zabaldu ziran barriro frontoiko musikarientzako entsegu gelak, COVIDa dala-ta 2020ko martiatik zarratuta egon diranak. Gainera, boulderra be jente gehiagok erabiltea gura dau Udalak eta oin, Igorrekoek bakarrik ez, Igorren errolatuta ez dagoanek be erabili ahal izango dabe. Entsegu gelak zein boulderra erabilteko giltza eskatu behar da Kultur Etxean eta horretarako aurretiaz hitzordua eskatzea gomendatu dabe, 94 637 62 51 telefonora deituta.



IGORRE


Bonodenda kanpaina abiatuko da Igorren maiatzaren 9an

Igorreko Udalak 3.000 bonu ipiniko ditu zirkulazinoan, baktotxa 15 eurokoa, kanpaineagaz bat egiten daben saltokietan erabilteko.

Erredakzinoa

Bonu baktotxa 10 euroren truke eskuratuko da, persona baktotxe-ko hiru gehienez, baina 15 euroko balioa izango dau erosle eta merkatarientzat. Maiatzaren 9tik bagilearen 30era bitartean erabili daitezke.

Bonuen salmenta Igorren errolatuta dagoan jentearentzat maiatzaren 9an hasiko da eta besteentzat maiatzaren 16an eta bagilaren 10a arte edo bonuak



amaitu arte erosi ahal izango dira Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan astelehen, eguazten eta

barikuetan 10:30etik 12:30era, eta martitzen eta eguenetan 18:00etatik 20:00etara. Erosteke orduan, NAN agiria edo eroldako ziurtagiria aurkeztu behar da.

Gehienez bonu bi pilatu daitezke erosketa baktotxeke eta zenbatekoa bonoaren balioa baino txikiagoa bada, ez da dirurik itzuliko.

Bonodenda kanpainearen helburua, merkataritza eta ostalaritza sektoreak dinamizatu eta herriaren irudia sendotzen laguntzea da.

AREATZA

Alde zaharrak hartuko dauz aurten Karpoko jaiak

Maiatzaren 7 eta 8, zapatu-domekarako baserri giroko jai egitaraua prestatu dabe Areatzan, Karpoko jaiak ospatuteko.

Erredakzinoa

Domekan, ganadu azokea egongo da eta bezperan, sukaldatze lehiaketak eta zesta-punta eta pala motz partiduak, besteak beste.

Errekako pasealekuan, goizetik hasiko da zapatuan jateko usaina, bertan prestatuko dabez-eta lehiaketarako gisadu eta paellak. Paellak eta gisaduak 14:00etan, aurkezteko dira udaletxeke arkupetan, epaimahaiak ebatzi dagian zein dan onena. Ondo-

ren, 14:30ean, bazkari herrikoia egongo da, eta bazkalostean,



17:30ean, zesta-punta eta pala partiduak. 20:00etatik aurrera, Rockalean taldeak ipiniko dau musikea herrian, tabernaz taberna ibilita.

Domekan, Ganadu eta Artisan Azokea egongo da 10:30etik 13:30era plazan. Ganadua plazan egongo da eta artisau postuak Goikokalen. Girotzeko, Bizkaiko gaiteruak ibiliko dira herrian zehar eta guraso alkartekoei taloak egingo ditue. Azokea amaitutakoan zozketea egingo da.

ARRATIA

Arratiako Koruak Vatikanon kantaiko dau

Erredakzinoa

Arratiako Koruak, Vatikanon kantatuko dau, maiatzaren 8an, hango basilikan egingo dan mezan. *Ama maite, Slava Otsu, Aita Gurea* eta *Agate Deuna* kantaiko ditue.

Arratiako Koruak Vatikanon kantetako konbitea oin dala urte bi jaso eban baina pandemia-

gaz eta ezarri ziran mobilidade murrizketak ezin izan dira oin arte joan. Oin, 42 lagun joango dira: koru zuzendaria, koruko 31 abeslari eta laguntzaileak, hain zuzen be. Ilusino handiagaz doazela azaldu deutso BEGITURI Ana Teresa Sierrasesumaga korukoak "hunkigarria izan behar dau han kanteteak" dino.

Maiatzaren 7an urtengo dira Arratiatik eta 10ean bueltauko dira. "Koruaren emonaldiaz gainera, aurreikusita daukaguz hainbat bisita artea eta Erromaren edertasunagaz gozatzuteko".



Arratiko Herri Ikastetxeak

Gure

ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre



IPINI ZURE IRAGARKIA
BEGITUN!

Informazioa: 649 979 115 eta inigoirua@begitu.eus

ATEAK ZABALTZEKO EGUNA

(2020, 2021 eta 2022an jaioetakoentzako)

Bertaratzeko...

EGUNA 2022/05/21

ORDUA: 10:00 / 11:30

LEKUA: Ikastolan

LASTER ARTE!

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

CTX CONTAINEX

TeknoDidaktika
Formación Profesional en P.E.

Nilfisk

MASTER
CLIMATE SOLUTIONS

MANITOU
HANDLING YOUR WORLD

**10
URTE
BAINO
GEHIAGO
DISEINATZEN
ARRATIAN**

**ESTUDIO
DUENDE**
estudioduende.com

AREATZAN GAUDE

**Goi mailako ziklo
berria Zulaibarren**

**Automatizazio
eta robotika
industrialak**

Aurrematrikula maiatzaren 9tik 27ra

ZULAIBAR
ARRATIARNO LANBIDE IKASTEGIA

Apunta Zaitetz!

☎ 94 673 91 16

ZULAIBAR

ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

atara zure talentoa

Goi Mailako Heziketa Zikloak	Automatizazioa eta Robotika Industirala BERRIA Gizarteratzea Fabrikazio mekanikoko diseinua Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
Erdi Mailako Heziketa Zikloak	Mendekotasun egoera dauden pertsonen arreta Mekanizazioa Instalazio elektrikoak eta automatikoak Sarbide zuzena goi mailako zikloetara
Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloak	Instalazio elektroteknikoak eta mekanikoak Elementu metalikoen fabrikazioa Sarbide zuzena erdi mailako zikloetara

LAN-MUNDUA

UNIBERTSITATEA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

BATXILERGOA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

D.B.H.

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

ZERGAIK L.H.? ZERGAIK ZULAIBAR?

% 80

ARTE

LANERATZEA

Gure heziketa zikloetan %80 arteko tituludunak lanean hasita

IKASI + LAN KONTRATUA

FORMAKUNTZA DUALA

Formakuntza Dualean ikasle kopuru handia ikasketak ikastetxe eta enpresan tartekatuz

HETEL

elkartaren merkatu analisia

KONTRATAZIO BEHARRIZANAK

Enpresen kontratazio aurreikuspenak

FAMILI PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

%70

FABRIKAZIO MEKANIKOA

%66

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

%63

Aurrematrikula 2022-2023

Maiatzaren 9tik 27ra

688 76 33 60

orientazioa@zulaibar.org

Zulaibar Auzoa 17
48144 Zeanuri (BIZKAIA)
Tel. 94 673 91 16
www.zulaibar.org

Erasmus+

Praktikak atzerrian

urratsbat

Sortu zeure enpresa

ETHAZI

Ondak Formakuntza Alde Berdinetan Oinarrizko Ikasketak

Fp EUSKADI

dual

Aktibo- kolaboratibo metodologia

Ikasi eta lan eginaldi berean

www.zulaibar.org

Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegia @zulaibararratia zulaibar.arratia

Elizbarrutiko Ikastetxeak

HEZKUNTZA

Itunpeko sarearen alde egiten dauala hezkuntza lege barrirako hitzarmenak kritikau dabe eskola publikoaren aldekoek

Aprilaren 7an onartu eban Eusko Legebiltzarrak EAEn hezkuntza lege barri bat egiteko oinarrien akordioa, EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU taldeen babesagaz. PPk eta Vox-ek kontrako botoa emon eben. Legea, seguru asko, udagoienera aterako da aurrera.



Erredakzioa

Dokumentuak alderdi gehien oneretxia izan arren, kritikak jaso ditu eskola publikoaren aldekoen aldetik eta ezinegona eta haserrea somatzen da eskola publikoan. Askoren ustez, honen aukerea emoten eban sare biko sistemeagaz amaituteko eta Euskal Eskola Publikoa indartzeko, baina Legebiltzarrean onartutakoa, ez bakarrik sare biak mantentzeko, itunpekoa hauspotu egiten dauala uste dabe. Izan be, Euskal Hezkuntzaren Eraldaketarako Oinarrien txostenak sare publikoa eta pribadua mantentzeko egiten dauz, publikazioa baztertzuz, eta horrek eskola publikoa kaltetu eta itunpekoari babes emoten deusala ereisten deusie eskola publikoaren aldekoek. ELA eta Steilas sindikatuak eretxi berekoak dira eta ituna bozkatu zuten egunean, Steilas sindikatuak, alkarretaratzea egin eban Legebiltzarren kanpokaldean, eskola publikoaren alde.

Akordioak, batez be lau gai garrantzitsutan ipini ditu oinarriak: euskereak izango dauan lekuan, itunpeko ikastetxeen betebehartan, segregazioa zelaz gainditu eta zein izango dan eskola pu-

blikoaren paperean, hain zuzen be.

Itunpeko ikastetxeak eta eskola publikoa

ELA sindikatuak eta EHIGEk (Euskal Herriko Eskola Publikoko Gurasoen Elkarteak) hezkuntza lege barrirako akordioak, oingo sistema duala betikotu egiten dauala adierazo dabe, Steilas hezkuntza sindikatuak, ildo beretik, "itxuraz progre, baina izaeraz neoliberala" dala esan dau. Izan be, titularitasun pribaduko eskolak diru publiko gehiagotz lagundutea aurreikusten dau akordioak, eta horrek, eskolen arteko desbardinatasunak handitzea ekarriko leuke. Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak, txostenak, publikoa ardatzean jarri ez, eta titularitasun desbardinatutako ikastetxeak parakatzen dituala kritikau dau, eskola publiko eta pribaduen abiapuntu eta egoera desbardinatuta kontuan izan barik.

Steilas-en arabera, eskola itanduetako gestino pribadua diru publikoagaz sostengatuko da, titularidadea mantentzeko eta pribadua babesteko da diru gehiagotz horniduz. "Hezkuntza sistema dagozan publiko/pribadu titularitasunak mantentzen dira. Beraz, helburu pribatizatzailea

"Derrigorrezko eskolaldiaren amaieran B2 euskerazko maila eskuratzeko helburua lortzea, eta horretarako eskola guztietan euskera ardatz moduan finkatzeari balio handia emoten deusagu"

izaten jarraitzen dau. Publikotasunaren kontzeptua zalantzan ipintzen da, eta autonomiaren atxakiararen pean gobernantzea udalen eskuetan ixten da. Baina udalek borondate, kolore politiko eta baliabide anitzak ditue. Horrek ikastetxeen arteko aldea areagotu leike" azaldu dabe Hezkuntza itunaren irakurketa eta ondorioak azterketan.

EHIGE be bat dator pribatizatzailea izaten jarraitzen dauan eretxiagaz: "Dokumentuak bardingitu egiten ditu itunpeko ikastetxeak eta ikastetxe publikoak, eta eredu honek porrot egin dau. Horrerik benetan buelte emon beharrean eta hezkuntza benetan eraldatu beharrean, argi gertatu zan hemen badagoala eredu hau betikotzeko asmoa" azaldu eban Lurdes Imazek EITBn, Legebiltzarrean onartutako hurrengo egunean, akordioa, itunpeko sarera oso "eskoratuta" dagoala salatuz.

ELA sindikatuak be, "sare banaketea gainditu" eta publikazioaren alde ez egitea leporatzen deus hitzarmenari. "ELAk uste dau hezkuntza sistemeak eraldaketa sakona behar daua. Jomuga lez sistema propio burujabea hartu behar da, publikoa

eta anitza, egungo sare banaketea gainditu eta tokian tokiko errealdadei eta beharrei erantzungo deusena". Sare bateratua egiteko transizioa adostu behar da. Bide horretan, "borondate leuki eskolen publikazioarako marko egonkorra ezarri behar da, langileen subrogazioa ziurtatuz".

LAB sindikatuaren arabera, barriz, "eskola publikoari hasierako zirriborroan baino garrantzia handiagoa emon jako aprilaren 7an onartutakoan". Ha-ta guzti be, eskola publikoarako egonkortasuna eta konsolidazioa, EPE ereduaren aldatzea, lan-hitzarmenak eguneratzea eta 0-3 urte bitarteko Hezkuntza Sailean integretea eskatuten dau.

Ikastolen Elkarteak barriz, bat egiten dau "Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren gainean egiten dan proposamenagaz"; baita, "Hezkuntza Zerbitzu Publiko horretan egongo diran ikastetxeek %100 finantzatuak" egoteagaz, baina faltan botaten dabe euskereari jagokoenan murgiltze eredu ezartzea, baita euskal curriculumaren inguruko aita-mena be.

Segregazioa

Segregazioa da oingo hezkuntza

sistemearen arazo nagusietako bat. Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformearen arabera, frogatuta dago, segregazioa eta sare bikotxaren artean dagoan loturea. Izan be "sare publikoak unibersala izan gura dauan bitartean, sare pribaduak ez ditu gustuko ustez emaitza akademiko kaxkarragoak euki leikiezan ikasleak, eta ez ditu onartzen" dinoe.

LABek segregazioari aurre egiteko adostu diran neurriak balioan ipinten ditu eta neurri egokitzat jotzen ditu: "Hezkuntza Konplexutasun Indizea izaera publikoaz arautzea eta ekidadeari lotutako zuzentze neurriak ezartzea, eskola plangintzearen araudia eguneratzea, ikasleak onartzeko prozedura bakarra izatea, ekidadea behatzeko ebaluaziorako lan-ildoak sortzea edo-eta lanaldi zatitua finkatzea".

Ikastolen alkarteak be egoki ikusten dau segregazioaren inguruan egindako planteamentua, eskolatzeko orduan herritar guztien aukera berdintasuna (bal-dintza bardinak bermatuz) eta hezkuntza eskaintzearen barruan ikastetxea hautatzeko eskubideak bermatzen diralako. Izan be, hauxe dino txostenak: "erakunde

"Sare publikoak unibersala izan gura dauan bitartean, sare pribaduak ez ditu gustuko ustez emaitza akademiko kaxkarragoak euki leikiezan ikasleak, eta ez ditu onartzen"



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus

Olaxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen giberua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiraletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askitasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
-Bilatu dena jabetza
-Baina dena proiektu
-Saimenaren zein datatzean
-Lurak (erakileak, landak, basak...)
-Etebiziak (pauk, basak, etxak...)
-Garaioak
-Lurak komertzioak
-Publikoak...
-Balonak...
-Baina dena proiektu
-Irakin berriak erakitzeko
-Etebiziak
-Arkitektura-proiektuak
-Baina dena proiektu
-CEE eta ITE-ak
-Hirigintza oharikarritza
-Negozioak irekitzeko
-kudeaketa
arratia
INMOBILIARIA
Lehendakari Agirre 23, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - 94 657 70 04
E-posta: arratia@arratia.com

Kili-Kili
Amara eta Puzatutako
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

begitu 20 urte

bakotxaren eskumenen errespetuan eta familiek ikastetxea auke-ratzeko askatasuna errespetatzeko, desorekak gainditzeko neurri eraginkorrak adostuz eta bardin-tasun balditzetan eskolatzeko aukerak" bermatuko dirala.

Steilasen ustez barriz, "orokor-kerietatik harago" Hezkuntza Itunak ez dau segregazioagaz amaituteko neurri zehatzik ekar-ten, eta ELAk ipinitako helburuak ez dirala argiak dino.

Euskerearen lekua

Euskerearen jakintza mailari jagokonean, Euskal Hezkuntza Eraldatzeko Oinarriak txostenak eskolaldiaren amaieran ikasle guztiek B2 eskuratzeko dauka helburutzat eta horretarako eskola guztietan euskera ardatz mo-duan finkatuko dala dino. Hirue-letasunaren aldeko apustua be egiten dau.

Hori egoki jotzen dabe LABek eta Ikastolen Elkartek. "Derri-gorrezko eskolaldiaren amaieran B2 euskerazko maila eskuratzeko helburua lortzea, eta horre-tarako eskola guztietan euskera ardatz moduan finkatzeari balio handia emoten deusagu. Hori hala izateko, euskera irakas-kuntza-hizkuntza izango dala bermatu beharra dago. Egungo hizkuntza ereduak gainditu eta euskerearen ikas eredu bakar eta orokortua ezartzeko transi-zino tasatua beharrezkoa da" dinoe LABetik.

Ikastolen Elkartearen arabera, dokumentuak euskera ardatz daukan sistema eleaniztunaren alde egiteari egoki eristearren, dokumentuak be badino eus-kal hezkuntza euskera ardatz daukan sistema eleaniztuna dala, eta beraz, ez da argi geratzen pro-posatzen dan sistemeak zelango aldea eukiko dauan egun inda-rean dagoanagaz. Ikastolentzat, murgiltze ereduak ezarriko dan ala ez argitu beharra dago. "Beraz, akordioagaz lege artikulatua jo-rratu ahal izateko, beharrezkotzat deritxagu hezkuntza sistemeak eredu orokortu eta bakarra izan-go dauala berenberegi jasotea. Ez dauka zentzurik etorkizuneko sistemeak egun indarrean da-goanaren bardina izateak" dinoe. Hezkuntza sistemea ziklo barri baten sartzeako oinarrizko eus-kera gaitasuna belaunaldi barri guztiei bermatuko deuszen "ere-du barri orokortua" ezarri behar da.

Steilasek, hirueletasunak eus-kereari presentzia kendu eta eremu ez euskaldunetako umeak kaltetzen dituala uste dau.

Curriculum propioa

Euskal curriculumaren aitamen faltea be kritikau dabe askok. Ikastolen alkartetik "faltan bota-

ten dogu euskal curriculumaren inguruko aitamena be. Ez dago Hezkuntza Legerik curriculumaren inguruko aitamena egin ba-rik" dinoe. ELAk, barriz, proposa-menak Espainiako Kongresuaren inposaketa kurrikularra onartzen dauala eta Euskal Herria ez dala

marko erreferentziala dino. LABek, euskal curriculum propio bat ga-ratzeko apustua garatu beharko litzatekela. Horretarako, eskumen guztiak izan behar dituala EAEk eta lurraldetasuna landu behar dauala hezkuntzak defendiduten dau sindikatuak "Euskal Herriko

hezkuntza sistema propio eta burujaubea eregi bidean, bate-tik, Eusko Jaurilaritzak hezkuntza eskumen osoak eskuratu behar ditu; eta bestetik, lege barriak hezkuntza esparruan EAEk Euskal Herriko gainerako lurraldeakaz izan beharreko hartu-emonen

aintzat hartu beharko leuke". Eskumen osoak eskuratzeko, laiktasun osoa ezartzea ahalbi-detuko leukela be badino LABek, estadu espainolak Konkordatu-a-gaz daukan akordioa gainditu eta eskola guztietatik erlijinoa kanpo itxiko leukelako.

KAI UDALEKUA 2022



1-16 URTE

4 proposamen

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra arte

Eredu!

HAURTZAINDEGIA 1-2 urte

Ekainaren 23tik uztailaren 22ra arte

7:15 -15:30

INGELERA, KIROLA, SORMENA ...

3 urtetik aurrera

9:00 -13:00

PROGRAMAZIOA eta ROBOTIKA

5 urtetik aurrera

9:00 -14:00

KIROLA (Urdaibai)

11 urtetik aurrera

9:00 -14:00

zerbitzu osagarriak

7:30 - 9:00	zaintza / jolasak
13:00 edo 14:00	JANTOKIA (txanda 2)
15:30ak arte	zaintza



Izenemotea

INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA

@ cmtidazkaritza@karmengoama.eus

☎ 946 730 935

MAIATZAREN 20ra arte

LEMOAKUSTIK FEST

Izkander Fernandez: "Itxaropena da aurtengo edizinoa definiduten dauan berbea"

Barriro be udabarrian izango da Lemoakustik jaialdia; maiatzaren 14an, hain zuzen be. Ez da ibiltaria izango eta kontzertu guztiak Kotxepinen izango dira, baina pandemiaren aurreko edizinoetan lez, jana eta edana egongo da *foodtruck* eta txosnatan. Gainera, karteiko taldeak gazteak dira eta etorkizun handikoak. Horregaitik guztiagaitik aurtengoa itxaropenaren edizinoa dala dino Izkander Fernandez Lemoakustik Fest jaialdiko antolakuntzakoak.

Arratiako Musika Eskolea, Ane Han, Esanezin, Pasadena, Habi, eta Ibil Bedi taldeak egongo dira.



Izkander Fernandez.

Erredakzioa

Kotxepinen izango dira kontzertuak eta ez herritik zehar.

Bai. 2020an ez genduan jaialdia egin, nahiz eta zeozer prestatuta euki. 2021ean atzeratu egin genduan urrietara, ze udabarri partean dudak euki genduzan eta atzenean asmatu egin genduan udagoienara paseteagaz, ze egiteko aukerea izan genduan, baina seguruenik udabarrian ezin izango genduan egin. Aurten bueltau gara gure data naturalera, maiatza erdira. Antolakuntzan ez ginan fidatzen aurreko formatuan egin ahal izango genduan eta horregaitik, gitxi gorabehera igazko formatua mantentzen dogu; hau da, gune baten egin kontzertuak. Zorionez Kotxepin Kultur Etxea daukagu eta hemen egingo dogu guztia, eszenaleku bitan, txan-

daka: aurreko eszenaleku biribilean eta atzeko landan. Holan guretzako be, soinu probak egiteko eta dana prestatzeko askoz errazagoa da. Formatua ez da gure betiko formatua, baina espero dogu hurrengo urterako gure betiko formatua berreskuratzea. **Hau da, herri osoan egitea.** Bai, herri osotik kontzertuak egitea. Orduan, ikusita aurten gune baten antolatuko genduala, pentsau genduan aukera interesgarria zala taldeak ekarteko. Taldeak sonoretatuko ekipo bat behar da eta ezin da herritik mobidu, ze hiru edo lau ekipo beharko litzateke eta ekipo bi daukaguz. Orduan aurten leku baten finkatuta, taldeak ekarri doguz. Esanezin oin arte bakarlaria izan da eta oin taldeagaz etorriko da. Lemoako Ane Han be izatez bakarlaria da, grabetako eta konposatzeko baina zuzenekoetan

taldea izango dau. Beraz, taldeak ekarri doguz. Datorren urtean, mobiduten bagara herritik, barriro ekarriko doguz bakarlariak edo bikoteak eta gauean talderen bat. **Zergaitik aukeratu dozuez talde horreek aurtengo Lemoakustikerako?**

Lehen esan dodan moduan, egoerak bultzatuta, une egokia zan taldeak ekarteko. Taldeen aukeraketa artistikoa Jokin Uriarte eta bion artean egiten dogu. Nik musika piloa entzuten dot, musikan murgilduta nago beti eta talde asko ezetuten dodaz, Euskal Herrikoak be bai. Eta bion artean egiten doguna izaten da eskaneau gure eszena eta pentsau zer dan egokia gure formaturako. Gure formatua, teoriar, akustikoa da, baina benetan ez. Dana dala, ezin dogu ekarri metal talde bat formatuagaz ez datorrelako bat, baina adibidez, Pasadena edo Izaki Gardenak jotzen badabe nahiz eta elektrikoa izan, danontzako modukoa da. Rock alternatibo amerikarra country-aren ingurukoa egiten dabe Pasadenakoek. Izaki Gardenak taldeko musikariak dira gehienak, proiektu paralelo baten. Ez dago hainbesteko desbardin-tasunik Pasadena eta Izaki Gardenak taldeen musikan; akaso ilunagoa da Pasadena taldekoa.

Ibil Bedi folk-rock taldea da, gure artean egindakoa baina kanpoko musika estiloak jotzen dauz: countrya, folk britaniarra...

Habi rock alternatiboa da, oso gozoa. Igual indartsuena izango da, gitarrak-eta entzungo doguz, baina oso gozoa da.

Eta Esanezin bera lanire Aranzaberen bakarkako proiektua da baina Lemoakustiken taldeagaz aurkeztuko da. Holan egiten dauan lehenengo kontzertua edo lehengoetarikoa izango da. Indie musikea egiten dau.

Arratiarrek be presentzia daukie kartelean.

Bai. Ane Han lemoaztarra eta Arratiako Musika Eskolea izango doguz. Ane Han-ek be indie antzeko zeozer egiten dau. Egia da ez dogula entzun oindino. Hemen estrenauko da zuzenean

eta aurkeztuko ditu kanta barriak. Bera oso pozik dago Lemoan joko daualako eta gu be oso harro gagoz, ze ez dogu bakarrik herria, gure antolatuteko ahalmena eta gure parte-hartzea erakutsiko dogu holan. Oin dala urte batzuk egon zan Larregi taldeagaz eta oin badauka aukerea bakarlari moduan egoteko. Larregik gainera ekarri ebazan herriko musikari asko. Beti saiatzen gara Arratiako musikariak ekarten. Oin dala lau urte egon zan Bihotz Gorospe eta lehenengo urtean Borja Estankona. Aurten subertea daukagu lemoaztarra dalako, eta hori guztiontzako poztasuna da.

Eta Arratiako Musika Eskolea be egongo da.

Bai. Eurak etorri ziran eskaintzeagaz, gazteentzako garrantzitsua dalako eta konturatu ginan oso aukera ona zala. Atzen finean, hau ez da ekimen pribadu bat, publikoa da, herrikoia, eta bailarako parte-hartzea bultzatu gura dauana. Orduan, zerbitzu bat emoten badeutsagu Arratiari ba askoz hobeto. Plataforma bat izan daiteke musika eskolan sortutako taldeentzat. Ezetuten dabezan musikari ezagunakaz kartel bardinean egon eta ekipo bardinagaz jo eta eszenaleku berean jotea, nik uste dot polita izango dala, erakargarria. Eta eurentzat be oso interesgarria. nik uste, bi edo hiru formazino izango dirala. Ez dakit zer joko daben. Adostu doguna da teknikoki zer behar daben eta guk hori eskainiko deutsegu.

2017an sortu zanetik, bidetxo bat egin dau Lemoakustikek. Filosofia eta helburuak bardinak dirala esan leike nahiz eta formatua apur bat aldatu, egoerak derrigorturta ala al-daketarik egon da?

Aldatu zan batez be igazko edizino, ze jakina, frenaketa bat egon zan pandemiagaz. Nik esango neuke hau itxaropenaren edizinoa dala, ze azkenean ikusten gabiz tunelaren amaierako argiak barriro, bizitza "berreskuratzen" gabiz... Udabarrian kanpoan kontzertuak entzuteko aukerea izango dogu barriro, eta oin ez dago murrizketarik. Eta gainera



daukagun kartela oso ona da: Arratiako Musika Eskolea, lemoaztar bat eta gaur eguneko talde gazteak, seguru asko, etorkizunean zeresan handia emongo dabena. Nik uste dot alde horretatik itxaropena dala aurtengo jaialdia definiduten dauan berbea.

Formatua aldatu zan, zoritxarrez, pandemiagaz. Igaz ez zan egon jatekorik, *foodtruck*-ik edo holangorik. Aurten egongo dira eta txosnnaren bat be ipini gura dogu. Euskal Herriko garagardaoa ekarten genduan lehen, eta enpresakaz eta alkarreakaz gabiz berbetan, Euskal Herriko garagardaoa eskaini ahal izateko.

Beraz, formatu ibiltaria ez baina beste guztia bueltauko da: janaria bueltauko da, bazkalduteko aukerea, edatekoa eta abar.

Kotxepinen atzeko landa, sano leku polita da kontzertuetarako.

Aurtengoa edizino polita da. Igazkoa be oso ondo urten zan, hemen, Kotxepinen. Gure dudakaz etorri ginan, ze lehenengo aldia zan leku baten egiten genduan eta lekua be ez egoan prestatuta. Baina sekulako argazkiak egon ziran Anariren kontzertuan eta ikusi genduan aukerea egoala hemen gauzak egiteko.

Gertatzen dana da jenteak gogoratzen dauala aurretik egiten genduan: eskoletan, Arrabin, hemen... leku desbardinetan. Jai giroa sortzean zan eta hori formatua berreskuratuta behar dogu. Dana dala, aurtengoa polita izango da.



erosketak
%33
merkeago

Igorre
gure
dendakaz

**Etorri Igorrera
erosketak egitera!**

**Maiatzaren 9tik
ekainaren 10era**

**15€KO
BALIOA DU
PREZIOA: 10€**

ANTOLATZAILEAK



IGORREKO
UDALA



ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!

begitu
eus



678 JARRAITZAILE



177 JARRAITZAILE



2.064 LAGUN



begitu 20^{urte}

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

PELOTEA

Amaia Aldai eta Nora Mendizabal txapeldunorde Bizkaia Torneoan



Erredakzinoa

Olatz Arrizabalagak eta Naroa Agirrek irabazi eben apirilaren 23an Bilbon jokaturako IV. Bizkaiko Torneoko finala, Amaia Aldai eta Nora Mendizabaleri 11-22 irabazita. Euskera, Kultura eta Kirol foru diputadua Lorea Bilbaok ipini eutsezan txapelak irabazleei. Olatz Arrizabalagak, torneoko pelotari onenari saria jaso eban. Ez egoan faborito garbirik eta Amaia Aldai Dimakoak eta Nora Mendizabalek partidua txarto hasi arren bueltea emon eta 10-10 bardindutea lortu eben. "Hortik aurrera, Arrizabalagak sakeagaz min handia egin eban eta nik

ebatzi txar batzuk hartu nebazan. Horren ondorioz eurek 22ra heletzea lortu eben" azaldu deutso BEGITURI Aldaik. Amaierako helburua lortu ez arren, txapelketearen balantze positiboa egiten dau Dimako pelotariak. Izan be, nahiz eta txarto hasi, txapelketako finala jokatea lortu eben. **Zornotzako Master Kaiolako finala** Maiatzaren 8an, Aldaik Zornotzako Master Kaiolako finala jokatu dau, Olatz Arrizabalagaren kontra. Finalerako pasea apirilaren 24an lortu eban Miren Larrarteri 22-17 irabazi ostean.

FUTBOLA

Valenciak irabazi eban Harrobi futbol klubak kimuentzako antolatutako txapelketea

Erredakzinoa

Eguraldiak ez eban lagundu apirilaren 23an, futbol txapelketako egunean. 2010ean eta 2011n jaiotako mutikoez osotutako 12 talde neurtu ziran Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatutako VII. Txapelketan. Finala Valencia eta Real Zaragozaren artean jokatu zan eta Valenciak irabazi eban txapela. Etxekoek, Lemoako Ha-

robi taldeko jokalariek gaztetxoek ez eben partidurik irabazi, "beste maila bat da" dino Alex Maguregik Lemoako Harrobi taldeko presidentek. Lemoako Harrobi, Deportivo Alaves, Real Zaragoza, SD Eibar, CD Parquesol, Valencia CF, Arenas Club, Real Sociedad, Real Racing, Real Valladolid, Antiguoko eta Club Atletico Osasuna izan ziran txapelketan parte hartu eben taldeak.



MENDIA

Onditz Iturbe izan zan lehenengoa Jaengo Kilometro Bertikaleko lasterketan

Aiaramendi Korrikalariak Kirol Klubeko Onditz Iturbe Arginzoniz igorrezarrak irabazi eban apirilaren 30ean Jaenen jokaturako Espainiako Kilometro Bertikaleko Kopako bigarren saioa eta Klub Txapelketea zan Magina Sky Race lasterketea.

Erredakzinoa

Bigarren, Andaluziako selekzio noko Silvia Lara Dieguezek egin eban, eta hirugarren, Todovertical taldeko Cristina Trujillo Gonzalezek. Aiaramendi Korrikalariak taldeko Ainara Urrutia Yurrebasok laugarren egin eban. Oihane Sarrasketak 23.a. Jaengo Albanchez de Maginan jokaturako probeak 2,7 kilometroko ibilbidea euki eban eta 1.000 metroko desnibela. Igorrezarrak 00:44:02ko denporan egin eban, bigarrenari minutu erdi bat baino gehiago ateraz, eta minutu bateko aldea, hirugarrenari. "Lasterketea gogorra bezain polita izan da. Eguraldi aldetik be itzel. Hasieran arranketea apur bat kostau jatan, baina gero erritmoa hartu eta nahiko polito igon nebzan. Amaierara zan zatirik teknikoena eta hor gehiago kostau

jatan baina burrukatzeko indarra aterateko gai izan nintzan. Gustura amaitu neban eta pozik nago egindako lanagaz" azaldu deutso Iturbek BEGITURI. Hurrengo egunean, Torreseko 28 kilometroko eta 2.500 desnibeleko mendi lasterketan be parte hartu eban eta hau be irabazi eban 02:33:31 denporea eginda. Bigarrena Beatriz Pardo izan zan 02:50:31 eta hirugarrena Maria Jesus Galvez 03:06:43 egin ebana. "Taldek mutilek berotuta, lasterketea egitera animau naz. Behin Jaenera bajatuta, aprobetxau. Lasai hartu dot eta entrenamentu modura, oso ondo. Zatik handiena bakarrik egin dot eta amaieran beroak be estutu dau, beraz. Baina ibilbidea egia esan polita izan da" azaldu dau Igorrekoak. **Galdakaoko Herri Krosa** Apirilaren 24an, Galdakaoko He-



Onditz Iturbe. Argazkia: Almagro.

rri Krosaren 10. edizinoa irabazi eban 00:29:36 denporeagaz.

FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia B taldea lidertzan

Erredakzinoa

Gizonezkoen Arratia A taldeak 1-0 irabazi eutsan maiatzaren 1eko eguerdian Basconia B taldeari. Aurreko astegoienean osterara 4-1 galdu eban etxetik kanpo Galea A taldearen kontra. 34 jardunaldiren ostean Arratia hirugarren postuan dago 65 puntugaz. Datorren partidua domekan, hilak 8, jokatu dau Moraza A taldearen kontra goizeko 11:30ean, etxetik kanpo. Gizonezkoen Arratia B taldeak lidertzan jarraituten dau. Atzen partidua apirilaren 30ean jokatu eban Mungia B taldearen kontra eta 1-3 irabazi eban. Aurreko astegoienean Abadiño Bren kontra etxean jokaturako partidua be irabazi eban, 3-2. 29 jardunaldiren ostean Arratia B lider da 62 puntugaz. Datorren jardunaldian Berriatuko taldearen kontra jokatu dau etxean maiatzaren 7an, 18:00etan. Andrazkoen Arratia A taldeak ligako atzen partidua jokatu eban apirilaren 24an Monte talde kantabriarraren kontra. Atzen partiduetan punturik lortu barik ibili bazan be, bina bardindu eban ligako atzen

partiduan. Ligea hamaikagarren amaitu dau Arratiak, 26 jardunalditan 24 puntu lortuta. Oin Kopeari ekingo deutso hilabete honetan. Arratia B taldeak maiatzaren 1ean jokaturako atzen partidua, 2-5 irabazi eban Arizen kontra etxetik kanpo. Aurreko astegoienean osterara Adiskideak taldearen kontra Urbietan jokaturakoa galdu egin eban, 0-3. 28 jardunaldiren ostean 30 puntugaz hamalagarren postuan dagoz arratiarrak. Datorren aurkaria Pauldarrak B taldea izango da, etxean neurtuko dira zapatuz, hilak 7, arras-

tiko 15:30ean. **Lemoako Harrobi** Lemoako Harrobik 2-0 irabazi eban Ibarsusi taldearen kontra apirilaren 30ean Arlonagusian jokaturako partidua. Aurreko astegoienean partidu garrantzitsua eukan Arlonagusian be eta 3-2 irabazi eban bere aurretik joian Mungia A taldearen kontra. 30 jardunaldiren ostean Lemoako Harrobi bigarren dago sailkapenean 60 puntugaz. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Gernika Sport A taldearen kontra maiatzaren 7an, 16:00etan.



AZKOREA

Irati Astondoak Urrezko Aizkolarien finalerdietarako pasea lortu eban Arespalditzan

Astondoa azkolaria zeanuriztarrak irabazi eban Arespalditzan aprilaren 24an jokaturako Urrezko Aizkolarien bigarren kanporaketa eta finalaurretarako sailkatu zan.



Erredakzinoa

Claudia Muñoz eta Beatriz Tanco izan ebazan aurrez aurre Arespalditzan eta erlojuaren kontra zein abiaduran, bietan nagusitu zan Zeanurikoa. Erlojuaren kontra 1'34"ko kronoa egin eban; bigarrena, Claudia Muñoz izan zan minutu bat eta 58 segundoko kronoagaz eta hirugarren Tancok egin eban minutu bi eta lau segundogaz. Abiaduran be, irabazi eban Astondoak, 10'08" eta 11'42" denporakaz. Modalidade honetan be, Muñozek egin eban

bigarren eta Tancok hirugarren.

Txapelketea

Txapelketako lehenengo kanporaketa Leaburun jokatu eben bezperan Uxue Ansorregik eta Laiene Pikabeak eta Pikabeak irabazi eban. Bigarren kanporaketa, Arespalditzakoa izan zan eta han Astondoak lortu eban hurrengo faserako pasea. Beste kanporaketa bi egongo dira, eta horreetan beste bost partaide neurtuko dira. Kanporaketa horreetako irabazle biek eta Pikabeak eta Astondoak, jokatu dabez finalerdiak.

HALTEROFILIA

Bruno Soto lemoaztarrak irabazi dau Espainiako Halterofilia Txapelketea

Bruno Sotok, 96 kilo azpiko kategorian, hiru urre lortu ebazan aprilaren 23an Madrilén jokaturako Junior mailako Espainiako Txapelketan, 132 kilo abiadan eta 167 kilo denpora bitan altxatuta, eta, beraz, erabateko olinpikoa 299 kilo egin ostean.

Erredakzinoa

Hiru dominez gainera, txapelketea irabazteak, bagilaren 11 eta

12an Salamancan jokatu dan Espainiako Txapelketa Absoluturako, eta Europako Junior Txapelketarako sailkatu dau Lemoakoa.

MENDIA

Kantabriako Kilometro Bertikalen Kopako lehenengo proban bigarren egin eban Jokin Zabala bediaztarrak

Bigarren aldia da Jokin Zabala mendi lasterketari bediaztarrak Kantabriako kopa jokaturen dauana. Aurrekoan, 2019an, bigarren egin eban eta oingoan be emaitza bera egiteko helburua dauka. Hiru lasterketa dira. Lehenengoa Trevison jokatu zan aprilaren 10ean eta bigarren egin eban. Hurrengoa maiatzaren 22an jokatu da Castro Valneran, eta atzena bagilaren 4an Fuente De-n.



Erredakzinoa

Trevisoko lasterketea, ez da izan aurreko urteetako modukoa. Harri bat jausi zanez, danak batera urten beharrean, bosnaka urten ziran 30 segundoko aldeagaz. "Ni hirugarren taldean urten nintzan erreferentziak eukiteko; lehenengo taldean faboritoak urten ziran" azaldu deutso BEGITORI Zabalak. Bediakoak minutu bateko diferentzia eukan eta ibilbideari esker aurreko taldea ikusteko aukerea euki eban. "Orduan ibilbide hasieran asko estutu behar izan neban eta distantzia kendu eta gero, lasterketeak iraun eban

40 minutu eta 37 segundotan, aldeagaz jokatu". Holan Zabalak bigarren denporarik onena egin eban (00:40:37), Roberto Ruiz Revueltaren atzetik (00:39:25). "Podium bat lortutea sensazio itzela da eta gainera Senior mailan lortutako lehenengo podium garrantzitsua izanda, gehiago".

Hurrengo lasterketak

Maiatzaren 22an jokatu da X. Castro Valnera Kilometro Bertikala. 4 kilometroko ibilbidean, 1.200 metroko desnibela gainditu beharko dabe partaideek; Fuente De-n, bagilaren 4an, 2,5 kilometroko ibilbidean 950 me-

troko desnibela.

Hiru lasterketa honeek egiteko gogor entrenau da Zabala, aurrekoan egindako bigarren postua egiteko oingoan be. Horretarako "erregulartasuna eta tinko mantendutea" garrantzitsua izango da.

Ez dau ahaztu gura Zabalak inguruko babesa eta eskertu gura izan ditu "entrenetako denporea aterateko emon deusten laguntasunagaitik eta ametsen bila joatea bultzatzearen". Ha-ta guzti be, ametsa Kopa gogor honetan bigarren egitea bada be, "bideaz gozatu eta lagun eta familiagaz disfrutetea da lehenengo helburua, hau *hobby* bat da-ta".

15 kilo hobetutea txapelketa baten, ez neban espero. Zoriontsu nago marka horreekaz, lehenengo postua eta hiru urrezko domina lortu nebazalako. Baina batez be, markak hobetuteagaitik. Da-

torren Espainiako Txapelketarako be helburu bera daukat, neure markak hobetutea eta holan, ahalik eta ondoen egotea Europako Txapelketan" azaldu deutso BEGITORI Bruno Sotok.



ZINEGOAK

Zinegoak jaialdiko 6 film ikusteko aukerea Igorren

Erredakzinoa

Maiatzaren 6an, 20:00etan, Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans 19. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko sei film labur ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoa. *Les filles ne marchent pas seules la nuit*, *No deberías*, *Elsa*, *Berak baleki*, *17 minutos con Nora* eta *To The Future*, *With Love* dira filmok.

Katherine Martineau zuzendari kanadiarraren 2020ko filma da *Les filles ne marchent pas seules la nuit*. Institutuko gaueko graduazino festa baten ondotik, Chantal eta Delphine bakarrik abiatuko dira etxerantza oinez. Basoan galdu-ta, desirak hartuta egingo dabe gaueko ibilbide luzea. Jatorrizko bersinoan, frantsesez, euskera eta gaztelaniazko azpitoluakaz ikusi daiteke 17 minutuko film hau.

Euskal Herriko Maider Garcia Merinorena da *No deberías* film laburra. Garcia Merinok dilema bat planteetan deutso protagonis-teari filman. Iratxe protagonisteak 21 urte ditu, eta unibersidadeko azken urtea amaitzen dago. Neska-lagunagaz lehen urteurrena ospatu aurreko egunetan, espero ez eban albiste bat ekarriko deutso haurdu-naldi testak. Badaki lehenbailehen kontau behar deusala Norari, bai-na badaki lur jota itxiko dauala, ez zalako erraza izan ebaztea sexua berresleitzeko ebakuntzarik ez egi-tea. Jatorrizko bersinoan, gaztela-niaz, botako dabe *No deberías*.

Elsa Albert Carbó zuzendari

kalanaren pelikulea katalanez dago eta euskera eta gaztela-niazko azpitoluakaz ikusi ahal izango da. Transexualidadea haurtzaroan da filmak jorratzen dauan gaia. Elsak 6 urte ditu eta bere edadeko umeek lez, zo-rioritsu eta aske bizi gura dau. Eta badaki bera desbardina izan arren, neskea dala.

Euskeraz dago *Berak baleki* Aitor Gametxoren filma. Filmak Marti-nen istorioa kontetan dau; bere beharrak ilusinoz beteten badau be, bere bizitza personalean hu-tsune handi bat sentiduten dau.

Imanol Ruiz da Larak zuzendu-tako *17 minutos con Nora* filmak nerabe baten istorioa kontetan dau. Nora, jagokon ez gorpu-tzean harrapatutako neska bat da, aitaren oneretia bilatzen dauana. Antzerkia asko gustetan jako bai-na aita pentsetan dau horrek ez daukala etorkizunik. Bien bizitzak guztiz aldatuko dira, bere bene-tako identidadea aitari erakusten deusanean. Gaztelaniaz dago.

Animazinozko pelikula batek osotuten dau emonaldia, *To The Future*, *With Love* izenekoak, hain zuzen be. Shaleece Haas esta-tubatuarrak zuzendutako film honetan, Hunter Jimenez "Pixel", Guatemalako etorkin familiako nerabea, bere familiaren espekta-tiba eta bere urruneko mutil lagu-nagaz zorionsu biziteko ametsen artean harrapatuta sentiduten da. Ingelesezt eta euskeraz eta gaztelaniazko azpitoluakaz egongo da ikusgai.



LITERATUREA

Andrezaharraren manifestuagaz zita bi

Erredakzinoa

Zahartzaroaren lanketa feminis-teagaz interesauta dagozanek hi-tzordu bi daukiez maiatzean, biak Mari Luz Estebanek idatzitako *Andrezaharraren manifestua* poe-ma liburuaren inguruan. Lehe-nengoa, Zeanuriko Mazala Andra Taldeak antolatutako irakurketa feministearen tailerren barruan, poesia liburuaren lanketea egingo da egileagaz batera. Saioa, hilaren 4an, 18:30ean, izango da Zeanu-riko Kultur Etxean.

Bigarren hitzordua, maiatza-ren 21ean izango da 17:30ean, Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoa. Liburuan oinarrituta, poemak, musikea eta antzezla-na buztartzen dituan ikuskizuna



taularatuko dabe Mari Luz Es-tebanek, Ainhoa Alberdik, Iraia

Eliasek, Jurdana Otxoak eta Idoia Beratabidek.

ZINEKLUBA

Black Power-aren garapena eta diasporea ekarriko dau zineklubak Igorrera

Erredakzinoa

Maiatzaren 5ean, 20:00etan, 1960 eta 1970 hamarkadetakoa AEBetako errazismo eta *Black Power*-aren iraultzaren gaineko Göran Olsson 2011ko *The Black Power Mixtape 1967-1975* dokumentala ikusi ahal izango da Igorreko Lasarte Aretoa.

1967 eta 1975 artean Har-lem eta Brooklynko kaleak, eta AEBetako beste leku batzue-takoak, *Black Power* erritmoan taupaka hasi ziran. Iraultzaren oihartzunak Suediaraino heldu ziran, eta handik erreportari talde bat abiatu zan mobimentuagaz

bat egiteko. Baina grabau ebe-zan bobinak Suediako telebistako soto baten geratu ziran, 30 urtez. Handik erreskatatu ebazan Göran Olssonek Mixtape hau egiteko eta artista, aktibista, musikari eta jakintsu afroamerikarrei egindako alkarrizketak osotu eban doku-mentala. Bertan, *Black Power*-eko buruzagi batzuk ikusi daitezke, besteak beste, Angela Daviseri egindako alkarrizketa bat; baita hirurogeta hamarrek hamarka-dan komunidad baltzean arnas-ten zan giroa, mundu mailan oihartzuna izan eban aldaketea bultzatu eban gizarte, kultura eta estiloa, hain zuzen be.



UDALEKUAK

Udalekuetarako izena emoteko epea zabalik dago Igorren



Erredakzinoa

DBH3 eta 4ko gazteentzako, ga-ragarriaren 11tik 14ra Jaka ingu-ruan antolatuko diran abenture-tako, eta LHko 6. maila eta DBH1 eta 2koentzako garagarriaren 5 eta 6an antolatuko diran jolasak eta tailerretarako eta 7an, 8an eta 9an izango diran udaleku itxietarako izena emoteko epea zabalik dago. Maiatzaren 11ra arte emon daiteke izena, Igorre-ko Maratu Gazteria Zerbitzuko bulegoan, astelehen, eguaz-ten eta barikuetan, 17:00etatik 19:00ak arte. Igorreko Udalak antolatuta, Zaztapparrak Asti Tal-dearen eskutik egingo dira uda-lekuok. Plaza mugatuak dira eta Igorreko gazteek eukiko dabe lehentasuna.

IKUSKIZUNA

Amatasunaren inguruko hausnarketea musikea eta jantzearen bitartez

Erredakzinoa

Maiatzaren 7an, 20:00etan, *AMARAUN* musikea, kantua eta jantzea buztartzen dauan ikuskizuna egongo da Igorreko Lasarte Aretoan. Oihana Iguaran eta Amaiur Luluagaren jantzek bideratuko dabe amatasunaren inguruko hausnarketea. Lanku kultur zerbitzuen produkzioa da.

"(Ama) izan ala ez izan" ebatzitik abiatuko da emonaldia. Enpatia eta aitortza ariketa bat da, eta hausnarketa bat gizartean amatasunak beteten dauan pateraren gainean. "Ez aurreikusi jantza ikuskizun bat, ez espero

bertso emonaldi bat; hau bidaia bat da. Bidaia hipotetiko bat amatasunean zehar. Bidean gorputzak, ahotsak, jantza eta bertsoa kurutzatu jakuz. Eta amatasunak kurutzatu gaitu" dinoe Iguaran eta Luluaga ikuskizunaren sortzaileek.

Lanku

Bertsozale Elkarteak, bertsolaritzaren azpiegitura indartzeko sortutako kultur enpresea da Lanku. 2003an sortu zan eta bere helburu nagusienetako bat herri mobimentuaren antolakuntza errespetauz, bertsolaritzea indartzea da.



KONTZERTUA

Matraka Culinary Center ikuskizunak musikea aterako deutso jatekoari

Erredakzinoa

Maiatzaren 13an, 18:00etan Igorreko Lasarte Aretoan egongo da *Matraka Culinary Center* ikuskizuna. Bertan, Jon Urrutia "Trakamatraka" musikariak, musikea aterako deutso jatekoari.

Edozerreri ateraten deutso musikea Trakamatrakak, janariari *Matraka Culinary Center* ikuskizunean, kaneloiak, kalabazinak, azenarioak eta beste ortuari batzuk musika tresna bihurtuz. Izan be, "erritmo mamitsuek, usain melodikoez bustitako sabore harmoniatsuez elikatutako ikuskizun gustagarria" da ikuskizuna, "jakin-min gosea asetzea eta musikearen, sormenaren eta irudimenaren munduan eta ingurumenagazko errespetuan murgiltzea bilatzen dogu. Ikuskizun honetan ez da ezer botaten eta dan-dana aprobetxetan da".



DOKUMENTALA

Lander Garroren Tipularen sehaska kanta dokumentala ikusgai Igorren

Erredakzinoa

Sarek antolatuta, maiatzaren 12an, 19:00etan, ikusi ahal izango da Igorreko Lasarte Aretoan. Garrok zuzendutako filmak, kartzela, gaixotasuna eta heriotzea hartzean ditu gaitzat.

1942an kartzelan hil zan Miguel Hernandez poeta espainiarraren *Nana de la cebolla* olerkitik abiatuta, preso hiltearen gaineko hausnarketea planteetan dau dokumentalak.

Sinopsia

Diagnostiko bat egiteko edo tratamendu bat izateko medikua-renera joatea gauza arrunta da kanpoko munduan. Baina preso dagozanentzat bide oso gatxa edo ezinezkoa da. Zuzendariak, kartzelan gaixo egotearen esperientzia bizi izan dabenengana jo dau, horren ondorioak ulertuteko. Diskurso politikotik harago doan hizkuntzea erabilten dau, osasunerako eskubiderik ez daben presoen indefensinoa emozinoen ikuspegitik esplorauz. Film artistikoa da *Tipularen sehaska kanta*, lehen personan eta hesteetatik kontatua. *Nana de la cebolla* olerkitik abiatuta, analogia historikoa egiten dau filmak: 1936ko gerran preso hilteak zentzurik ez baeukan, zentzurik ba ete dau gaur?

JANTZARI EGUNA

Dantzari Egune maiatzaren 7an Diman

Erredakzinoa

Gazte Barrik antolatuta, kalejireia, jantza erakustaldia, bazkaria eta erromeria egongo dira besteak beste, giroa alaituten.

Herriko zein kanpotik etorritako jantzariak 10:45ean batuko dira plazan, eta 11:00etan, haiketako egingo dabe frontoi txikian. Ondoren, 11:30etik 13:00etara, kalejireia egingo dabe talde bitan eta plazan amaitu. Lehenengo taldean Arantzarte eta Arrikibar jantza taldeko jantzariak joango dira eta bigarrenen, Durundubarri, Urduri eta Gazte Barri taldekoetakoak.

Plazan amaituko da kalejireia eta bertan jantzak egingo ditue: *Agurra*, *Ezpata joko txikia*, *Polka Pik*, *Esku dantza*, *Gorulari*, *Domingilloa*, *Lantzeko zortzikoa*, *Zapatari* eta *Txulalai*. Ondoren otzara bat zozketatuko da eta jantzariek, txistulariek eta arduradunek bazkaria izango dabe frontoi txikian. Erromeria 16:00etan hasiko da plazan Kittu taldeagaz eta 18:00etan txokolatea egongo da danontzat.



DUNBA

Martiak 8 Arteako eskolan

Arteako eskolako 3. zikloko ikasleak

Martiaren 8a Andren Nazinoarte-ko Eguna da.

Astelehenean irakasleek esan euskuen gela bakotzak ekintza bat egitea pentsau ebela egun hori aldarrikatzeko.

Behin gela bakotzak pentsauta eukanean zein ekintza egingo eban, horren prestaketa lanak egiten hasi ginan:

- HHkoek: "M8" ipinten eban kartel bat marraztu eban.
- 1. zikloak: "emakumeen lana leku guztietan" zelangoa zan kartel bat prestatu eban.

- 2. zikloak: "emakumeak libre izatea" kartela egin eban.
- 3. ziklokook: "emakumeen janzkerea" erakusten eban kartel bat prestatu genduan.

Martiak 8 eguna heldu zanean, gelan, irakasleak esan euskun ekintzak egiten hasiko ginala. Lehenengo ekintza, herriko Kultur Etxera joatea izan zan andrei buruzko azalpen txiki bat entzutera.

Heldu ginanean, andra ezagun bat gure zain egoan. Barrura sartu eta horma zuri baten andren argazki pilo bat egoan, gehienak ezagunak: Frida Kahlo, Malala, Maurizia eta herriko hainbat andra. Andra hareen argazkiak zergaitik



egozan horman azaldu euskun eta ondoren bideo bat ikusi genduan. Gelara bueltau ginanean, an-

drei buruz berba egiten hasi ginan eta kartela prestatzen arrastian frontoian ipinteko.



Arrastian kartel guztiak frontoian ipini ondoren, plazara joan ginan azken ekintza egitera, guk gura dogun patioaren maketak ipintera herritarrek ikusteko.

AGENDEA

MAIATZAK 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Udabarri osoan zehar medi ibilbide autogidatua Urigoiti (Orozko)-Aldabide-Sintxita. Zailtasun txikia. Parkeko ur-jauziak ezetuteko aukerea. Informazino gehiago Parketxean. 94 673 92 79 eta gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus.

ARRATIA

Hilaren 18an Arantzazun hasiko dan *Cocinar plantas silvestres* ikastarorako eta maiatzaren 20 eta 21ean egingo dan *¿Cómo estar en grupos y no morir en el intento?* tailerrerrako izena emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitatean edo udaletxeetan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

Hilaren 11ra arte, izen emotea, LHko 6. maila eta DBH1 eta 2koentzako garagarriaren 5 eta 6an antolatuko diran jolasak eta tailerretarako eta 7an, 8an eta 9an izango diran udaleku itxietarako eta DBH3 eta 4ko gazteentzako, garagarriaren 11tik 14ra Jaka inguruan antolatuko diran abenturetarako Gazteria bulegoan, astelehen, eguazten eta barikuetan, 17:00etatik 19:00ak arte.

Maiatzaren 30era arte, izena emotea urri lehenengoaren 30etik urri bigarrenaren 5erako Costa del Solen jubiladuen egonaldirako. Biajea hegazkinez. 637 euro. Telefonoa: 94 631 61 20.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Bagilaren 3ra arte, jaietako Kartel Lehiaketan parte hartzeako kartelak aurkeztu leikiez lemoaztarrek udaletxean.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkia aurkezteko epea harrera@zeanuri.eus helbidean. Gaia: Zeanuri.

ZEBERIO

Helbarrengo Santa Kurtze jaiak. 12:00etan, mezea eta erramu bedeinkapena. Ostean, barauskarria.

Maiatzaren 4ra arte, maiatzaren 9an hasiko dan andrei zuzendutako *Autozaintza emozionala* ikastarorako izen emotea 94 648 10 79 telefonoan.

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegi sortutako espazioan ipini.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Maiatzaren 9ra arte, haurreskolan 2022-2023 ikasturterako izena emoteko epea.

MAIATZAK 4
ARTEA

18:30ean, Hiruki larrosako Joseba Gabilondoren berbaldi-tailerra *Sexu aniztasuna herri txikietan. Eta Artean, zer?* Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etan, Gorbeia Jubilatuen Alkarteak antolatuta, Lur 2000ko Ramon Zearretaren berbaldia, *Ortuariak: zer eta zelan landatu; erabili beharreko ongariak; mantenimendua eta antolamendua.* Jubiladuen lokalean.

18:30ean, Mazala Andra Taldeak antolatuta, *Andrezaharraren manifestua* poesia liburuaren irakurketa feministea Mari Luz Estebanegaz Kultur Etxean.

MAIATZAK 5
IGORRE

20:00etan, zinekluba *The Black Power*

Mixtape 1967-1975 (Göran Olsson, Suedia, 2011) Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroaren lehenengo saioa Idoia Eizmendiren eskutik. Maiatzaren 26ra arteko eguenetan Kultur Etxean.

MAIATZAK 6
ARTEA

18:00etatik 19:30era, maiatzaren 27ko Iruñarako txangorako izen emotea jubiladuen lokalean. Bazkideek 40 euro, ez bazkideek 45 euro.


18:30ean, umeentzako bertso-antzerkia *Urpekakariak* Kultur Etxean.

IGORRE

20:00etan, Zinegoak jaialdiko sei film labur: *Les filles ne marchent pas seules la nuit, No deberías, Elsa, Berak baleki, 17 minutos con Nora* eta *To The Future, With Love*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Helbarrengo Santa Kurtze jaiak. 18:30ean, txupinazoa; 19:30ean, tortillen aurkezpena, ondoren, sari banaketea; gauean parrilladea eta musikea.



Euskal komikiaren historia
ikusgai dago Igorren

Maiatzaren 23ra arte egongo da Igorren, *Euskal komikia 1975etik*, Bizkaiko Foru Liburutegiak antolatutako erakusketa ibiltaria. Euskal komikiaren bilakaerea kontetan daben luma-kartoizko 36 panelek osotuten dabe erakusketea eta Kike Infame eta Mikel Begoña dira komisarioak. Astelehenetik barikura, 09:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:45era ikusi daiteke Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Helburua euskal komikiak azkenengo berrogei urteetan izandako bilakaerea ezetuten emotea da, eta denpora horretan komikiak izan-dako eraldaketea birpasatzen dau. Erakusketeak komikiaren munduak izandako mobimentuak erakusten ditu: aldizkarien *boom*etik fanzineen agerraldira arte, egile-komikitik atzerriko merkaduen konkistaraino. Izan be, euskerazko lehenengo argitalpenen irekieratik eleberri grafikoaren finkapenera arte, euskarria moldatu egin da eta gizartearen errealidadera egokitu.

MAIATZAK 7
AREATZA

Karpoko jaiak. 14:00etan, Paella eta Gisadu Lehiaketan aurkezpena udaletxeko arkupetan; 14:30ean, bazkari herrikoia; 17:30ean, zesta-punta eta pala motzeko partiduak; 20:00etan, Rockalean taldea tabernaz taberna.

DIMA

Dantzari Egune. 11:30ean, kalejire; 13:00etan, jantza emonaldia; 14:00etan, otzarearen zozketea; 18:00etan, txokolata danontzat. Eguraldi txarra egin ezkerro frontoi handian izango da. Igorreko Arantzarte Dantza taldea, Lemoako Durundi Barri Dantza Taldea, Zeanuriko Arrikibar Dantza Taldea, Otxandioko Urduri Dantza Taldea eta Dimako Gazte Barri Dantza Taldea.

IGORRE

08:00etan, Udalak eta jubiladu alkarteak antolatutako mendi martxea Pagasarri. Ibilbidea: Zabalburu-Pagasarri-Zabalburu. Ostean garagardaotegi baten bazkaldu. Autobus galelekuan.

20:00etan, Oihana Iguaran eta Amaiur Luluagaren *AMaraun* musika eta jantza ikuskizuna Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen umeentzako mendi urtekerea Albiturri (944 m).

ZEBERIO

Helbarrengo Santa Kurtze jaiak. 11:00etan, martxa Helbarrengo auzoetara Santa Kurtzetik; 15:00etan, bazkaria etxetik eroandakoagaz. Edaria, ogia eta kafea batzordearen kontura eta ondoren bazkaloste gidatua; 17:30ean, jolasak eta txapelketak; 19:30ean, txokolata; 21:00etan, kontzertuak, Both eta Ostrich Wedding taldeakaz.

MAIATZAK 8
AREATZA

Karpoko jaiak. Goizean zehar Bizkaiko gaiteruak. 10:30ean, Ganadu eta Artisau Azokea plazan; 13:30ean, azoka amaiereta zozketea. Guraso alkarteak taloak egingo dauz.

ARTEA

13:00etan, Malabaricia eta Yol, poesia errebelde musikalizaua Herriko Bentan.

DIMA

19:00etan, 4kote, Abots Zurién Laukotearen emonaldia eskolako kamanan. Jai Batzordeak eta Udalak antolatuta.

IGORRE

17:00etan, zinea *Barraskilo eta balea*; 19:30ean, *Coda* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako goizeko urtekerea Bizkargi (555 m).

ZEANURI

Zeanuriko Erroten XV. Ibilaldia. 08:30ean, izen emotea plazan; 09:00etan, urtekerea.

ZEBERIO

Helbarrengo Santa Kurtze jaiak. Konbidaduen bazkaria.

MAIATZAK 9
IGORRE

Bonodenda kanpaineta hasten da bagilaren 30era arte.

ZEBERIO

18:00etatik 19:30era, andrentzako *Autozaintza emozionala* ikastaroa eskola zaharrean.

MAIATZAK 10
IGORRE

19:00etan, Makatzak Arratiako

Ekologistak taldeak deituta, herri batzarra Kultur Etxean.

MAIATZAK 11
ARTEA

18:00etan, Guraso eskolea Roberto Aguado psikologoagaz Kultur Etxean.

MAIATZAK 12
IGORRE

17:00etan, parrokiari Caritas Arratiaren esker ona aspaldiko boluntarioei eta berbaldia.

19:00etan, Sarek antolatuta, Lander Garroren *Tipularen sehaska kanta* pelikulea Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroaren saioa Idoia Eizmendiren eskutik. Maiatzaren 26ra arteko eguenetan Kultur Etxean.

MAIATZAK 13
ARANTZAZU

19:00etan, Amelia Tiganusen berbaldia *Las conexiones entre violencia sexual, pornografía y prostitución: propuestas éticas para vivir una sexualidad saludable* Kultur Gunean.

ARTEA

18:00etatik 19:30era, maiatzaren 27ko Iruñarako txangorako izen emotea jubiladuen lokalean. Bazkideek 40 euro, ez bazkideek 45 euro.

DIMA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Ahizpatasuna gure gorputzean* tailerra Edurne Pagolaren eskutik eskolako kamanan.

IGORRE

18:00etan, *Matraka Culinary Center* Lasarte Aretoan.

MAIATZAK 14
ARANTZAZU

08:00etan, plazan urtekerea. Arginatx Mendi Elkartek antolatuta, Aiako Harriak eta bazkaria Ola sagardotegian. 20:30ean buelte.

DIMA

10:30etik 14:30era, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Ahizpatasuna gure gorputzean* tailerra Edurne Pagolaren eskutik eskolako kamanan.

LEMOA

Lemoakustik Fest jaialdia. 12:00etan, Arratiako Musika Eskolako banda Kotxepin Kultur Etxeko atzeko landan; 13:00etan, Ane Han, Kotxepin Kultur Etxeko lorategian; 14:00etan, Esanezin, landan; 18:30ean, Pasadena, landan; 20:00etan, Habi lorategian; 21:30ean, Hala Bedi, landan.

ZEANURI

10:30ean, Abere, Artisau eta Nekazal produktuen San Isidro Azokea.

MAIATZAK 15
AREATZA/ZEANURI

Parquetxeak antolatutako mendi urtekerea, Lanbreabetik abiatuta (Zeanuri), Igiñigerreko kartsa ezetuteko ibilbide zirkularra. Izena emon gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

ZEANURI

Arrastian idi-probak probalekuan.

MAIATZAK 16
ZEBERIO

18:00etatik 19:30era, *Autozaintza emozionala* ikastaroa eskola zaharrean.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

SALTZEAN DODAZ

Saltzean dodaz altzari barriak eta erdibarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitekezie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

BATERIA SALGAI

Yamaha markako bateria saltzean dot. Laranja kolorekoa. Interesdunek deitu 676 967 854 telefonora.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

CADDY LIFE OHEAGAZ SALGAI

Volkswagen Caddy Life 1.9 tdi, 2007koa saltzean da. Oheagaz dator, baita atzeko portoiari ipinteko abantzia be. Interesdunek 680 683 133 telefonora deitu edo oihane.regil@gmail.com helbidera idatzi.

PISUA BEHAR DA ERRENTAN

Saharako gazte batek pisu merkea errentan hartu gura dau Igorre edo inguruetan. Lana (nominea) dauka.

10 urte inguru daroaz Euskal Herrian. Interesdunek 631 104 818 edo 607 841 058 telefonoetara deitu edo rakelgoni@gmail.com helbidera idatzi.

LANA

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.

SUKALDARI BILA

Zaztaparrak-ekoak udaleku itxietarako sukaldari bila gabiz. Abuztuaren 1etik 12ra bitarteko lana. Informazio gehiago gura izan ezker idatzi zaztaparrakudalekuitxiak@gmail.com-era.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **AMARAUN** ikuskizunerako.

Jon Urutxurtu (Zeanuri)
Eñaut Intxaurraga (Zeanuri)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Paris, Distrito 13** filmarako.

Amaia Goti (Dima)
Amaia Salcedo (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus





Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

*** INFORMAZIOA:**

- Web gunean
- Astelehenetik ostiralera
- 10:00etatik - 13:00 arte
- Telefona: 94 631 73 52

MATRIKULA

Epea: maiatzean



 - Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZORNOTZA

LANBIDE HEZIKETAKO
IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK

*Aurrematrikula
maiatzaren 9tik 27ra*

*Matrikula
uztailaren 15etik aurrera*

*Ate irekiak
maiatzaren 5ean eta 10ean*

ESKaintza osoa

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrial

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKaintza partziala

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile langabeei eta landunei zuzendutako ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com |   